# INTSEKTUEN INBENTARIOA (irudiduna)

Testua: VIRGINIE ALADJIDI

Irudiak: EMMANUELLE TCHOUKRIEL

Itzulpena: OIHAN PLA AZANTZA




Azal gogorrean egina. 21,5 x 30 cm. 48 or. 17 €

IRAKURKETAREN PLAN NAZIONALA (PNL Portugal) LER+

**Insektuen inbentarioa irudiduna** (euskara)
ISBN 978-84-9172-332-5. Kalandraka - Pamiela etxea. Zientzia.

**Inventario ilustrado de insectos** (gaztelania)
ISBN 978-84-15250-90-6. Faktoría K de Libros. Ciencias.

**Inventario ilustrado de insectos** (galegoa)
ISBN 978-84-15250-91-3. Faktoría K de Libros. Ciencias.

**Inventari il·lustrat dels insectes** (katalana)
ISBN 978-84-15250-92-0. Faktoria K de Llibres. Ciéncies.

**Inventário ilustrado dos insetos** (portugesa)
ISBN 978-989-749-054-5. Faktoria K de Livros. Ciência.

*Duela 400 milioi urtetik bizi dira intsektuak Lurrean.*

*Burruntzi erraldoiak hegaldaka zebiltzan jadanik*

*duela 350 milioi urte, dinosauroak agertu aurretik…*

«Intsektuen inbentarioa (irudiduna)» honek 65 intsektu espezie biltzen ditu, Europakoak eta mundu osokoak: koleopteroak, lepidopteroak, dipteroak, himenopteroak, isopteroak…

Soilik artropodoek mundu guztiko animalien % 80 baino gehiago osatzen dute. Zientzialariek milioi bat intsektu baino gehiago katalogatu dituzte, baina kalkulatzen dute benetako kopurua bost eta hamar milioi espezie artekoa dela. Ororen gainetik, izaki hagitz baliagarriak dira, loreak polinizatzen laguntzen baitute eta beste animalia batzuen elikagai baitira.

Liburu honetako ilustrazioak estilo zientifikoan eginak daude, zehatz-mehatz, naturalistek garai bateko landa-koadernoetan irudikatzen zituzten bezala: profilak errotulagailuz eta tinta txinatarrez eginak daude, eta akuarelek laguntzen dute koloreekin eta gardentasunekin jostatzen.

Liburu erakargarria, ez bakarrik intsektuen irudikapen grafiko ikusgarriarengatik, baita hainbat gairi buruzko eduki tekniko ulerterraz eta jakingarriengatik ere: anatomia, habitata, elikadura, soinuak eta irudiak hautemateko moduari buruzko bitxikeriak edota metamorfosiak dakarren garapen fisiologikoa.

- **Gaia:** intsektuen katalogoa, mundu osoko 65 espezie biltzen dituena.
- **Adin gomendatua:** 6 urtetik aurrera.
- **Alderdi azpimarragarriak:** akuarelaz egindako ilustrazio naturalistak; hiztegi ilustratua dauka; irudiak, izen arrunta eta zientifikoa eta deskribapena agertzen dira irudi-orri bakoitzean; espezieen arabera banatuta dago; beste *Inbentario irudidun* batzuk: «Fruitu eta barazkien inbentarioa», «Dinosauroen inbentarioa», «Animalien inbentarioa», «Itsasoaren inbentarioa», «Hegaztien inbentarioa», «Zuhaitzen inbentarioa».
- **Liburuaren aurrerapena:** https://issuu.com/kalandraka.com/docs/insektuen-inbentarioa-irudiduna.eusk

### Virginie Aladjidi

Hainbat urtez gazteentzako aldizkarietan eta argitaletxeetan aritu da. Gaur egun, liburu eta testu bildumak sortzen ditu, Caroline Pellissier lankide duela.
http://virginiealadjidi.blogspot.com

### Emmanuelle Tchoukriel

Arte Aplikatuen ikasketak egin zituen eta ikusizko komunikazioaren arloan osatu zuen bere formakuntza, Parisko Estienne Eskolan sartu eta irudigintza mediko eta zientifikoan espezializatu baino lehen.
http://tchouk-tchouk.blogspot.com







www.kalandraka.com
comunicacion@kalandraka.com
www.Pamiela etxea.com
soltxate@pamiela.com